



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

ADIERAZPEN INSTITUZIONALA

LGTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguna – (2016-06-28)

Mundu guztian daude pertsonak indarkeriari eta desberdintasunari aurre egin behar dietenak maite dituztenak maitatzeagatik, duten itxura edukitzeagatik, edo direnak izateagatik. Sexu orientazioa eta genero identitatea gure indibidualtasunaren alderdi integralak dira, eta inola ere ez lukete arrazoi izan beharko ez diskriminaziorako ez abusuatarako. Giza eskubide guztiak defenditzea da gizarte baten izaera demokratikoa definitzen duen identitate ezaugarrietako bat. Defentsa horretan nabarmen aurreratu dugu Historian zehar, nahiz eta emaitza desberdinekin. Ekainaren 28a da lesbiana, gay, transexual eta bisexualen komunitateari eman zaion eguna, gogoan izan dezagun haien eskubideak erreklamaziorako arrazoi direla oraindik ere. LGTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguna da egun bat, zeinean, gaur-gaurkoz, bat egiten baitute oraindik ospakizunak eta erreibindikazioak. Efemeride honekin agerian jartzen da gure gizartean ezen, nahiz eta errespetu maila handia lortu den pertsona horien eskubideekiko, badaudela esparru batzuk hobetzeko modukoak, haienak soilik direnak, ezin utzizkoak, eta beharrezkoak, gizartea, oro har, bete-betean garatuko bada.

Gipuzkoako Foru Aldundiak bat egiten du erreibindikazio horrekin, eta Gipuzkoako gizarte osoari dei egiten dio pertsona guztien errespetu eta duintasun balioak bultzatitzan, haien sexu orientazioa gorabehera. Tolerantzia ezinbesteko baldintza da, baina ez da nahikoa: aniztasuna ospatzearen alde egin behar dugu, zuzentasunezko eta asmo kolektiboko arrazoiengatik.

Sexuak eta generoak definitzen dute nola ulertzen ditugun giza harremanak. Ikuskera berezi horren gainean sortzen dira gure gizartean nagusi diren botere, askatasun eta eskubide sistemak. Patroi tradizionalarekin bat datozenentzat “arau” sortzerakoan, errealitatea sinplifikatu egiten dugu, gainerako aukera sexualak eta genero bizipenak egokitzen ez zaizkion eredu batera murrizten dugu errealitatea. Sinplifikazioak eragin ikaragarria du, guztiz bidegabea, eta murriztailea. Ezagunak dira ustezko “arau” horrekin bat ez datozenek jasaten duten bazterkeria-kasurik muturrekoenak, eta badago gero eta kontzientzia handiago bat, noizean behin oldarka sartzen diren indarkeriazko adierazpenik bortitzenak deuseztatu beharraz. Hala eta guztiz ere, sexu eta genero uniformetasuna oraindik ez da antzematen giza eskubideen aurkako eraso gisa edo horien murrizketa gisa. Guk norabide horretan aurreratzearen alde egiten



Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

dugu, ikuskera hori gainditzearen alde, eta sexu eta genero aukeren aniztasuna aitortzearen alde. Funtsezko ekarpen bat da normaltasun berri bat eraikitzeko, gizarte gizatiarrago eta demokratikoago bat.

Pertsona guztiek dute eskubidea beren duintasuna espresuki aitortua izan dadin, eta duintasun hori ezin da egon beren sexu orientazioen eraginpean. Aitorpen hori, hain denbora luzean lapurtua, eta gaur egun oraindik neurri batean bakarrik asumitua, duintasun adierazpena da, bai LGTB kolektiboak bai Gipuzkoako gizarte osoak bere egin behar duten duintasunarena. Horregatik guztiagatik, 2016ko ekainaren 28 honetan, LGTB Harrotasunaren Nazioarteko Eguna dela medio, Gipuzkoako Foru Aldundiak adierazpen hauek egiten ditu:

- Defendatzen du pertsona guztiek dutela eskubidea beren sexu orientazioa libreki hautatzeko.
- Apustu egiten du politika instituzionalak garatzearen alde, helburua izan dadin babestea eta indartzea lesbiana, gay, transexual, bisexual eta intersexualen eskubide politiko, ideologiko eta zibilak, bat etorrita askatasun publiko eta pribatuen oinarritzko printzipioekin.
- Aldezten du gizarte errespetutsu eta ireki bat, aniztasuna sustatzen eta ospatzen duena; beraz, giza eskubideak sustatzen dituena.
- Gaitzesten ditu indarkeria esplizituko nahiz inplizituko ekintza oro, portaera homofoboak edo diskriminatzaileak, eta pertsonen afektibitate, sexu nahiz genero orientazioak eragindako desberdintasun adierazpen oro.
- Integratzen ditu konpromiso horiek bere eguneroko zereginean, eta, beste neurri batzuen artean, zainduko du konpromiso horien arabera izatea baliabide publikoen erabilera, eta bultzatuko du entitate publikoei nahiz pribatuei edozein laguntza edo diru laguntza kentzea edo ukatzea, baldin eta sexu identitateagatik diskriminazio ekintzetan erortzen badira.
- Dei egiten die Gipuzkoako herritarrei egun hau ospa dezaten eta parte har dezaten, beren laguntza emanez Euskal Herriko hainbat hiri eta herritan ekainaren 28an antolatutako ekitaldiei.